



MAIER S.Coop.

Enpresaren identifikazioa eta helbidea

MAIER S.Coop.

Arabieta Industrialdea, z/g
48320 – Ajangiz, Gernika (Bizkaia)

MAIER S.Coop. establezimendua (Gernika, Bizkaia) irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren xedapenen mende dago (substantzia arriskutsuak tartean diren istripu larriei loturiko berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen ditu dekretu horrek), eta 7. artikuluan xedatzen den jakinarazpena aurkeztu dio Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari, artikuluko 1. apartatuan zehazten den edukiarekin, baita 10. artikuluko 1. apartatuan adierazten den segurtasun-txostena ere.

Establezimenduaren jarduera

Injekzio bidezko plastikozko pieza teknikoen fabrikazioa.

Istripu larria eragin dezaketen substantziak

Izena	H esaldiak	Piktogramak
Diluituriko azido kromikoa	<p>H271: Sutea edo leherketa bat eragin dezake; oso konburentea.</p> <p>H330: Hilgarria da arnastuz gero.</p> <p>H301: Toxikoa da ahoratuz gero.</p> <p>H311: Toxikoa da azala ukituz gero.</p> <p>H410: Oso toxikoa uretako organismoentzat, eta kalte iraunkorrak eragiten ditu.</p>	
Azido kromikoa E (BC)	<p>H301: Toxikoa da ahoratuz gero.</p> <p>H310: Hilgarria azala ukituz gero.</p> <p>H330: Hilgarria da arnastuz gero.</p> <p>H410: Oso toxikoa uretako bizitzarentzat, eta kalte iraunkorrak eragiten ditu.</p>	
Nikel kloruroa	<p>H400: Oso toxikoa da uretako organismoentzat.</p> <p>H410: Oso toxikoa uretako bizitzarentzat, eta kalte iraunkorrak eragiten ditu.</p>	
Amoniako Soluzioa % 26	<p>H400: Oso toxikoa da uretako organismoentzat</p>	



Nikel bainua	H412: Kaltegarria da uretako organismoentzat, eta ondorio kaltegarri iraunkorrek dauzka.	
Rackstrip zuzentzailea	H270: Sutea eragin edo larriagotu dezake; konburentea.	
Gainerako toxikotasun akutua, 1. eta 2. kategoria	H301: Toxikoa da ahoratuz gero. H311: Toxikoa da azala ukituz gero. H331: Toxikoa da arnastuz gero.	
Ingurune urtarrerako arriskutsua den gainerakoa, 1. kategoria akutuan edo 1. kategoria kronikoan eta 2. kategoria kronikoan	H411: Toxikoa da uretako organismoentzat, eta ondorio kaltegarri iraunkorrek dauzka.	
Gainerako likido konburentea, 3. kategoria	H270: Sutea eragin edo larriagotu dezake; konburentea.	

Gerta daitezkeen istripu larriak eta horien balizko ondorioak

MAIER S.Coop. enpresaren instalazioetan substantzia toxikoak, sukoiak eta ingurumenarentzako kaltegarriak daude. Substantzia horien ezaugarriak eta kantitateak kontuan hartuta, arriskuen analisietatik ondoriozta dezakegu istripu larriak (alegia, establezimendutik kanpo eragiten duten istripuak) produktu horiek tartean dauden istripu zehatzetan bakarrik gerta daitezkeela.

Establezimendutik kanpo eragina izateko moduko istripu larria ekar dezakeen kasurik okerrena sute bat da —1000 L-ko disolbatzaile depositu baten apurketagatik sortua —.

Establezimenduak nola jokatu behar duen istripu larria izanez gero

Enpresak neurri egokiak hartu behar ditu establezimenduan, eta larrialdi-zerbitzuekin jarri beharko du harremanetan, istripu larrien kasuan jardun eta arriskuak ahalik eta gehien murrizteko.

Establezimenduan esku hartzeko jarduerak eta agintari eskudunei adierazi beharrekoak auto-babeserako planean jasota daude.

Kanpoko Larrialdi Plana

Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak MAIER S.Coop. -ren Kanpoko Larrialdi Plana egin du istripuak prebenitzeko, eta,



istripuren bat gertatuz gero, pertsona guztiei informatzeko nola jardun behar duten, betiere 840/2015 Errege Dekretuaren 13. artikularekin bat etorriz.

Kanpoko Larrialdi Plan honek jarduteko jarraibide zehatzak ditu larrialdiz-zerbitzuentzat, eta, horrez gain, larrialdiren bat denean zerbitzu horiek eman beharreko aginduak ere jasotzen dira.

Ustezko larrialdi bat planifikatzeko helburuarekin, bi jarduketa-gune definitu dira: esku hartzeko gune bat, zeinean istripu baten ondorioek eragindako kalteen mailak justifikatuko lukeen babes-neurriak berehala aplikatzea; bestalde, alerta-gune bat, zeinean istripu baten ondorioen eragina herritarrek ikusteko modukoa izaki, esku hartzea justifikatzen ez duen, salbu eta biztanleriaren talde kritikoentzat.

Arriskuen ebaluazioari jarraikiz, eta hipotesi eta egoera okerrenerako, hauek definitu dira: **esku hartzeko gune** bat, 29 metroko erradioa duena, eta **alerta-gune** bat, 35 metroko erradioa duena.

Herritarrentzako alerta eta informazioa

Istripu larriren bat eragin lezakeen egoeraren bat gertatuz gero establezimenduan, eragindako herritarrei ohartaraziko zaie eta informazioa emango zaie.

Honako bitarteko hauek erabiliko dira herritarrek ohartarazteko eta informazioa emateko:

- Zuzeneko abisuak segurtasun-taldearen bidez. Normalean, megafoniaz egiten dira (megafonia finkoa edo mugikorra izan daiteke). Abisu horiei esker, biztanleek zuzenean jakingo dute zein diren berehala aplikatu behar dituzten segurtasun-neurriak.
- Abisuak, hedabide sozialen bitartez (telefonía, faxa, posta elektronikoa, herri-irradiak, tokiko TV kateak).
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren sare sozialak (X sare soziala, Youtube...)
- 112 SOS Deiak app-aren bidez, herritarrek zuzenean komunikatu ahal izango dira Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroarekin (112 SOS Deiak), 112 telefono zenbakira dei eginez, edo, ezin bada, gor-mutuek ahotsik gabeko sarbidea eta irisgarria izanez.
- Gainera, alderantziz, 112 SOS Deiak app-ak istripuaren berri emango du kaltetutako herritarren gailu mugikorren bidez, autobabeserako jarraibideak adierazita.

Herritarrek zer neurri hartu behar duten larrialdiren bat egonez gero

Konfinamendurako eta Auto-babeserako Oinarrizko Jarraibideak

- Kanean bazaude, babestu arnasbideak musuzapiekin.
- Itxi ateak eta leihoak; ahal izanez gero, itxi pertsianak eta urrundu.
- Behar izanez gero, jarri trapu hezeak zirrikituetan.
- Ez erabili aireztapeneko aparatuek.



- Saihestu eraikinen behealdeko puntuak, hala nola sotoak eta garajeak, eta, ahal izanez gero, igo goiko pisuetara.
- Ez erabili telefonoa, behar-beharrezkoa ez bada behintzat.
- Entzun herri-irratia eta jarraitu agintariek emandako gomendioak eta jarraibideak.

Urrutiratzeko eta babeslekua hartzeko jarraibideak

Urrutiratzea eta babeslekua hartzea beharrezkoa izanez gero, informazioa helaraziko zaie herritarrei eta gertuko establezimenduei. Horretarako, zuzeneko abisuak emango zaizkie komunikabideen bitartez, hots, nora eta nondik joan behar duten, honako jarraibide hauek kontuan hartuta:

- Urrutiratzen zaren bitartean, babestu arnasbideak musuzapiekin edo trapuekin, eta bilatu babeslekua.
- Joan behar duzun lekura iristen zarenean, bilatu babeslekua lokal edo eraikin baten barruan, eta itxi leihoak eta ateak.
- Ez joan eskolara zure seme-alaben bila; haien arduradunei ondo jakinaraziko zaie zein neurri hartu.
- Ez erabili telefonoa, behar-beharrezkoa ez bada behintzat.
- Entzun herri-irratia eta jarraitu agintariek emandako gomendioak eta jarraibideak.



Babestu arnasbideak



Informazioa jaso komunikabideen bitartez



Esparru edo establezimendu hurbilenera joan



Ez erre, ez piztu surik



Itxi ateak eta leihoak



Ez erabili aire girotuko edo berokuntzarako ekiporik



Ez utzi ibilgailurik zirkulazioa oztopatzeko moduan



Establezimenduko babes-planaren arabera jokatu



Ez hurbildu establezimendura



Ez joan haurren bila eskolara

Azken ikuskapena

2023ko ekainaren 22an egin zen azken *in situ* ikuskapena.



Aurrez eskatuta, azken *in situ* bisitaren eta ikuskatze-planaren datuak lor daitezke, hemen:

Industria Erregelamendu eta Segurtasun Zerbitzua

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila
Donostia kalea 1
01010 Vitoria – Gasteiz

Informazio gehigarria

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo hona:

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza

Foronda kalea 41, La Torre eraikina
01010 Vitoria – Gasteiz